

FUNTSEZKO JARDUERAK

Zer dira funtsezko jarduerak?

Enpresa baten funtsezko jarduerak kudeaketakoak edo eragiketakoak izan daitezke. Ekintzailetzaren ekintza garrantzitsuenak dira, falta ezin diren lehentasunezko zereginak.

Jarduera horiek behar bezala egiten ez badira, negozioak porrot egin dezake edo oker funtziona dezake. Beharrezkoa da funtsezko jarduerak xehetasunez menderatzea, bazkideek eta langileek ere izan behar dute ezagutza. Denek izan behar dute enpresaren lan garrantzitsuenen berri.

Funtsezko jardueretan huts egiten duten enpresek arazo operatibo asko izaten dituzte, salmenta txikiak eta epe labur, ertain eta luzerako helburuak betetzeko arazoak.

Antza denez, jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utz daitezke, eta beste batzuk ez. Ezin daiteke besteen esku utzi know how (ezagutza) delakoarekin lotutako guztia.

Gure funtsezko jarduerak

Otaku Zonean, funtsezko jarduerak hauek izango lirateke:

Azpiegitura:

- Lokalaren kokapen estrategikoa erabakitzea
- Denda fisikoa bezeroen "otaku" zaletasunaren arabera apaintzea

Giza baliabideak:

- Ospe handiko gamer bat kontratatzea; publizitatea lortzeko
- Zerbitzariak eta administratzaileak kontratatzea; asesoria bat izatea oso garrantzitsua da, batez ere, aholkularitza eta kontuen kudeaketa zuzena etengabe izateko.

Teknologia:

- Bezeroaren eskaera- eta fakturazio-sistema ezin hobe eskaintzea.
- Wifi sistema azkarra; 5G

Erosketak:

- Dendarako gaiak erostea (mahai-tresnak, ordenagailuak, komikiak, etab.)
- Figuriten hornitzaileak onenak aurkitzea ; Ocio Stock

Beste zeregin batzuk:

- Japoniar goxokiak eskaini
- Mangan oinarritutako kamiseten pack desberdinak prestatu
- Publizitatea eta sustapenak abiaraztea (E3, Japan Week..)
- Bezeroaren gogobetetzeari buruzko inkestak egitea

Arazoak konpontzea

Bezeroen arazo espezifikotarako konponbideak bilatzera bultzatzen gaituzten jarduerak dira. Zerbitzu-enpreetan, kliniketan, aholkularitzetan eta abarretan ikusten dugu hori. Negozio-jarduera horietarako, etengabeko prestakuntza eta informazioaren kudeaketa egokia behar dira, guk egingo dugun moduan. Etengabe egingo ditugu ikastaroak giza harremanetan abilezia hobetzeko. Horrela, enpatiaz lortuko dugu arazoak konpontzea

